

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- **Norentzat sortzen dugu produktua?**

Gure proiektua biztanleria guztiari dago zuzenduta, ez dago bereziki giza-talde bati zuzenduta. Hala eta guziz ere, batzuek beste askok baino gehiago esekertuko dutela deritzogu, adibidez bidai asko egiten dituzten horiek edota haurrek. Bidaiariek eskertuko dutela iruditzen zaigu, izan ere, askotan komunikatu ezin diren lekuetan arriskuan aurkitzen badira adibidez, dauden herrialdean identifikatu ahal izango dira, hau da, bertakoek jakin ahal izango dute nongoa den horrela egokitu ahal izateko hizkuntza, itzultzaile bidez etab. Bestetik, haurren kasuan, erraztasun handiz galdu izaten gara txikiak garenean, beste herritara joaten garenean adibidez; hori dela eta, gure proiektuari esker haurra aurkitzen duenak jakingo du zein telefonori deitu gurasoak aurkitzeko.

- **Zeintzuk dira ukituko ditugun segmentuak negozio-eredu honen bitartez?**

Negozio-eredu honen bitartez hainbat segmentu ukituko ditugu: Hasteko, merkatu masiboa, jende askorentzako produktoa delako, pulsera hori jende guztiak erabili dezake eta. Horrez gain, merkatu aldeanizuna da, izan ere, gure proiektorekin jendearen bizimodua hobetu nahi degu.

- **Gehienez zenbat bezero izan ahal ditugu**

Gure nahia hasieran proiektua gure inguruko artean zabaltzea da. Behin hau eginda, negozioa herrialdean zabaltzea espero dugu, ondoren nazioartean zabaltzeko asmoz. Hortaz, aproximazio bat eginez, hasieran 50 bezero inguru izateko asmoa dugu eta ondoren kopurua asmotu nahi dugu.

- **Zeintzuk izan daitezke gure bezero garrantzitsuenak**

Aurreko galderetan esan dugun bezala, gure proiektua ez dago giza-talde bati zuzenduta. Baina egia da ere, gure produktuarekiko interes handiagoa edukiko dutenak bidaiariak direla, beraz, horiek izango dira gure bezero garrantzitsuenak; edozein adin tarteko biadaiariak.

- **Zein da gure enpresaren xede publikoa**

Gure erabiltzaileen segurtasuna eta ongizatea bermatzea. Laguntza behar dutenean, gure produktua erabiltzea eta lagungarria dela ikustea.

- **Zein ezaugarri ditu?**

Gure proiektuaren ezaugarri nagusia segurtasuna da, erabiltzaileen segurtasuna bermatuko baitu, eta horrekin batera haien ongizatea ere.